

Beste urte batez, Lea-Artibaiko langabeziak behera egin du %7,29an kokatuz.

Langabezi-tasaren joera beheranzkoa izan da 2014. urtetik egun arte bai Lea-Artibai eskualdean eta baita Bizkaian ere. Zehazki, 2014. urtetik 7 puntu jaitsi da tasa gure eskualdean, hau da erdira. Momentu honetan 998 dira eskualdean dauden langabetuak.

Era berean, Lea-Artibai eskualdea Bizkaia eta EAE-rekin aldeatuz gero, Lea-Artibaiko langabezia-tasa azpitik dagoela ikusi dezakegu; EAEn %11,2-koa da eta Bizkaian %12,2-koa.

Udalerrika aztertuta, Gizaburuaga eta Aulesti dira langabezia-tasarik baxuena dutenak, eta aldiz, altuena dutenak Ondarroa, Lekeitio eta Etxebarria dira.

UDALERRIA	LANGABEZI-TASA (%) 2018ko ABENDUA	KOPURUA
Amoroto	5,58	11
Aulesti	4,73	15
Berriatua	8,19	51
Etxebarria	9,5	33
Gizaburuaga	3,81	5
Ispaster	8,56	22
Lekeitio	9,87	257
Markina-Xemein	7,47	158
Mendexa	5,37	10
Munitibar-Arbatzegi Gerrikaitz	7,07	16
Ondarroa	11,69	407
Zionza-Bolibar	5,56	13
GUZTIRA LEA-ARTIBAI	7,29	998
GUZTIRA BIZKAIA	12,2	68.204
GUZTIRA EAE	11,2	119.674

Iturria: Hiri behatokia. Garapen